

BIZKAIKO ELIZ BATZAR NAGUSIA MANIPULATUTA?

Sarrera

Garrantzi handiko puntu batzutan bortxaketa edo manipulazioa egon dela baieztatzea, hitz larrietara jotzea da. Puntu garrantzitsu horiek, pastoral arazoekin zerikusia dutenak dira, baina baita doktrinari hurbil-hurbiletik ukitzen diotenak ere. Guzti hori ez nuen argitaratu nahi izan, kasu honen alde txarra, larria izanik ere, alde ona baino txikiagoa izan arren, komunikabideek asmo txarrez inoren zaurian eztena sartuz joku txarra egiten dakitelako; horregatik, neure familia dudan Kristoren Elizaren aurka direnak eta ez direnak esanez, hauts zikinak jasotzeko biderik ez nien eman nahi.

Hala eta guzti ere KARMEL aldizkariko ale honetan zerbait adieraztea erabaki dut. Izan ere KARMEL aldizkariaren ezaugarrietariko bat testigantza ematea da, eta honen ohiartzuna «erdarazko» argitalpenetako jendetza handiarengana helduko ez delako; eta bigarren arrazoia hauxe: bortxaketa hau, 87-III-8an ikusi ahal izan denez, geroago eta nabarmenagoa izan delako, Elizbarrutiko Batzar Nagusiaren azken zatian bizi izan dugunaren lekukotasuna historiarako hementxe ezartzeari egoki eritzi diot.

Batzar Nagusiaren erabakiak inori ezarri nahi izatea ere joku zikina egon daiteke, Batzar Nagusiaren izenean inori agin-

duak ezartzeko eskubidea, kasu honetan, zalantzan jar daitekeelako.

Batzarraren puntu eta une garrantzitsu batzuez dudan eritzia hauxe da: uste baino kaxkarrago eta pobreagoak izan direla hango zenbait txosten; eta txostengileak ere behe-mailetatik aritu direla. Ezjakintasunagatik ote? edo teologian, Biblian, pedagogian eta psikologian duten prestaera kaxkarragatik? edo eta doktrina aldetik oinarri onik gabeko «burrukalaria» huts batzuk bakarrik ote dira? Zenbait ideia proposatu eta haiek, pastoral eta doktrina aldetik baliokoak diren asko pentsatu gabe, su eta gar aurrera atera eta besteei ezarri nahiez ari direnak ote dira? Euren ideiak seriotasun eta irekitasunez defendatzeko gai ez eta aurreko urteetan inor ezin komenzitu izan dutenean, orain Batzar Nagusiaz eta botuaz baliatu nahi ote dute, bada, badaezpadako ideia horiek legeztatzeko?

Hemen erabilitako estilo eta metodoaz galdera larriak egin daitezke. Esate baterako, ez al da harrigarria azken aldiko «Elizbarrutiko Helburu Orokorren» saileko 141 proposamenetik ia guztiak baiezkoa lortzea eta ia guztiak gehiengo ikaragarriaz? 6.000 - 7.000 / 200 - 500en aurka eta horrela... Bere burujabe den gizatalderik ba ote da (eta Elizan ere pentsamolde eta joera ezberdinen eraginpean den jenderik bada) proposamen guztiak, ezadostasunik gabe, horrela baietza emango liokenik? Zergatik? Hau kasu bitxia denik ezin uka eta soziologoentzat interesgarria.

Harritzen nauena proposamen gehiago ez agertzea izan da, baina agertu balira ere, metodo eta estilo hau jarraituz, erantzun berbera izango zuket. Hemen aztertuko dudan bataioaren gaiak bezala, Kristoren Jainko izatea ukatzen ere ager zitekeen proposamenik, Bibliaren zientziak eta beronen lagungarri diren beste zientziak haizatu bait dute azken hamarkadan, Jesukristogan Jainko izatearen kontzientzia ez zela haren bizitzako une guztietan eman izan, oharpen hori apurka-apurka loratuz eta gorpuztuz joan zela baizik; hortik Jesusen Jainkotasunaz sortzen den problematika.

Edo eta «Sinesten dut Eliza, bat, Santu, Katoliku eta Apos-

tolutarra» formula Kredotik baztertzeko proposamenik ere ager zitekeen; gaur egun Elizari buruz esaten diren astakeriak eta dauden nahaste-borraste eta konplexoez ez nintzen bat ere harrituko baiezko botua jaso balute. Guzti hau, proposamenak egiteko era eta estiloagatik diot; norbere gogara bortxatzen erraza, kristau-heziketa sakonik gabea eta kristau soilen aurrean egindako proposamenak ziren eta.

Azken bileretako mahaietan (niri haietako bitara joatea egokitu zitzaidan), batzuk erabili dituzten erak benetan bitxiak izan dira, batez ere bileretatik kanpo «analfabeto» batzuk (ezkurtuan gorderik zeuden beste batzuren txontxongiloak?). Hauek, jorkabide makur, barregarri eta apetatsuz jendeari honelako kalifikapenak ematen saiatzen ziren: «progre», «retro», «karka» eta abar.

Proposamen batzuk «progre» kalifikapenaz datoz; hau da, aurrerakoitzat jo izan dira azaltzerakoan. Baina irrigarri eta lotsagarria ere bada, hain zuzen ere horiexek, honez gero gaingituak, lehengo denboretatik berbiztuak eta beraz, zaharkituak edo atzerakoiak direla frogatzea:

-Oraingo Elizaren eta teologiaren egoera, Biblian oinarritua hein batetan, aintzat hartu ez eta gainera bi mila urtetako bitzitza eta beste nazio batzutatiko teologi-pastoral egoera kontutan hartzen ez direlako.

-Gizonaren inguruan gauzatu diren beste giza-zientzien azken urteotako aurrerapenak ere ez dira proposamen horietan aintzat hartu; adibidez psikologian, filosofian, pedagogian, psikoanalisian etab. eman diren urratsak. Beraz, atzerakoitzat jo beharko ditugu proposamen horiek, «progre» izen dotoreaz agertu arren.

Baina tamalgarriena zera da: Batzar Nagusiaren gidariak eta txostengileak kategoria eta kalifikapen trakets horien jokuan erortzea, moda barregarri batzuk ederretsiz doktrina arloan, gaiak seriotasunez eta sakon aztertu beharrean. Elkarrizketa, banderatzat beti ahotan erabilia izan den elkarrizketa gehiago

beharko zen hor, baina egitez, ez hitz hutsez.

Manipulazio ezaugarri eta egintzak

Hasteko sarrerako ohar orokorrak nahiko direla uste dut; horregatik orain gai zehatz batetan bortxaketa edo manipulazioa nola eman izan den aztertzeraz joko dut.

Egia esan, azken aldiko bileretan azaldutako hainbat proposamenen buruz hitz egin nezake, baina hori ezinezkoa denez, horietako bat aztertuko dut, egoera osoaren argigarri: «Culto y oración» deritzan gaien 40.a *bataioari* dagokiona.

Bortxaketa benetakoa izan dela eta beraz, botu emateaz hartutako zenbait erabaki badaezpadakoak direla erakusten duten froga argiak aurkeztuko ditut.

1) Proposamen batzuk nondik zetozen nahiko argi zegoela iruditu zitzaidan hasieratik, lehen proposamenak ikustean. Parrokiaren batzutan ezarri nahi ziren ideiak bistakoak ziren, izan ere. Honez gainera, zerikusi handia du nortzuk diren proposamenak eta txostenak aurkezten dituztenak. Horiek aurrera atera edo ez, aurkezlearen esku dagoela neurri handi batetan, sinesturik nago. Proposamen berbera, era batera aurkeztu edo bestera aurkeztu, emaitza desberdinak jasoko lituzke ziur asko. Pasaizu hura dator kit une honetan gogora: fraide batek errezuak egiten zituen bitartean zigarroa erretzeko baimena eskatu omen zion Vatikanori. Honek ezetz biribila eman zion, jakina! Beste fraide maltzurrago batek, ostera, honela eskatu zuen baimena: ea zigarroa erretzen ari zen bitartean Jainkoagan pentsatu eta otoitz egitea zilegi ote zen... eta erantzuna, jakina, baietza izan behar.

Eragipen hau (eta ez dago, berez, zertan txartzat jo) kontutan izan ohi da gizarteko talde txikietan eta kristau soilen artean ere bai. Baina ni Batzar Nagusiaren azken aldi honi lotuko naitzaio.

2) 87-II-8an «Culto y oración» izeneko azken bileran aurkeztu eta botatu ziren 51 proposamenetatik, batek bakarrik jaso

zuen gehiengoaren ezetza (ez, baina, 2/3ko ezetz borobila) eta, hain zuzen ere, bataioari dagokion proposamena zen. 40. proposamenaren azpian, konpromisua bakoitzak bere gain hartu behar duela eta, *guztiak* adin nagusitan bataiatzearen aldeko ideia dago. Honela dio hitzez hitz: «A fin de recuperar el valor del bautismo como sacramento de adhesión personal a Cristo y de incorporación a la Iglesia, los responsables de la pastoral bautismal en las parroquias favorecerán su retraso hasta que pueda ser recibido consciente y libremente. Se aconseja su celebración alrededor de los 16 años» (9. gaia: *Culto y oración en la vida personal y comunitaria*, 27 orr.). Harrigarria! Ezezkoa jaso zuen proposamen bakarra. Hala ere horretan amaitu balitz.

Baina norbaitzuk buru eta bihotz ideia horren alde dihardufenez, hori nola edo hala aurrera atera ahal izateko trikimailu bitxi batetara jo dute: ezezkoa jaso zuen proposamen hartatik bi azpi-proposamen atera dituzte, ama beretik sortutako anaia bikiak bezala; eta testoa «proposamen alternatibo» izenez bataiatu dute; eta hemen dago gakoak (edo Ondarroan esaten denez, «kontuz, amua ezpanean»): 40a: «A fin de recuperar el valor del bautismo como sacramento de adhesión personal a Cristo y de incorporación a la Iglesia, los responsables de la pastoral bautismal en las parroquias favorecerán el retraso en administrar este sacramento a todos los niños hasta la edad en que puedan recibirlo consciente y libremente».

40b: «A fin de recuperar el valor del bautismo como sacramento de adhesión personal a Cristo y de incorporación a la Iglesia, la comunidad parroquial respetará y aceptará la decisión de los padres cristianos de retrasar el bautismo de sus hijos hasta que pueda ser recibido por éstos consciente y libremente» («Textos para la 2ª votación en los grupos, folioetako 7. orr.»)

Jendeak oker ulerturik, eta ez da harritzekoa, bietarik baten aldeko aukera egin behar zela uste izan zuen; hau da: bietarik gogokoen zuenaren aldeko botua eman eta bestea utzi! Horrela, inolako bereizketarik gabe, benetan kristau fededunak izan nahiz fedea erdi-galdurik zuten gurasoak izan, guztientzat bataioa

atzeratzea helburutzat zutenentzat, ahotik eskura eta bete-betean aterako ziren gauzak. Ondorioa, bataren aldekoa izan nahiz bestearen aldekoa izan, haien asmoa oso-osoan beteko zen. Joku bikaina, beraz!

Zenbait taldetan, bai bileran bertan eta bai bileratik kanpo, nahasketa larriak zirela konturatu nintzen; eta nahasketak «testo alternatibo» zorioneko horretaz zer ulertu behar zen zehazteko orduan; erantzuna erraza zen: bataren aldeko botua eman behar zela; baina biei ezetza emateko aukera ere hortxe zegoela, ez ziren gehienak ohartu.

Proposamen hauen sarreran, oster, puntu hori nahiko argi agertzen zen: «Hemos optado por ofrecer dos textos alternativos para una misma propuesta. Así hemos hecho con la 40 y la 45, añadiendo la letra a) y b) a cada número, para distinguirlas mejor. Si se vota SI, hay que escoger entre una y otra». Beraz, hortik, *biei ezetza* emateko aukera ere badela, ateratzen da. Baina aseguroen hitzarmenetan etorri ohi den letra txikiarekin gertatzen danez, gehienetan letra handiz datorrena bakarrik aintzat hartzen da eta besteari jaramonik ere ez. Bileran zehar, askoren buruetan nahasketa handia zela konturatu nintzen. Beraz, hartzen zen erabakia erantzunkizunik gabea izan behar.

3) Hau argi ikusi zen, *alternatibo* hitzaren esangureaz galde-tu eta bilera-zuzendariak (x.x.), mahaiburuko aginpidedun bati (J.A.U.) hitza eman zionean. Orduantxe azaldu zen ustegabekoa: askok ulertzen zuten erara, bietarik baten aldeko botua eman behar zela adierazi zuen. Eta nahaste-borrastea gehiago ezinera heldu zen nik keinuz (astirik ezagatik hitz egiteko baimenik ez nuen eta) proposamen paper ofiziala jaso nuenean, hemen «alternatibo» hitzari beste esangura bat ematen baitzitzaion; hau da: *biei ezetza emateko aukera*.

Ni harez gero mutu geratu nintzen eta ez nuen gehiago txistik egin, nahasketa zeharo nabarmena baitzen, eta manipulazioa bideraturik eta finkaturik zegoen nahaste-borraste hartan; hain garrantzitsua zen gai batetan, hain zuzen. (Erantzunkizun-

nak?).

4) Mahaiaren eta txostengilearen aldetik (JA.Uren aldetik), proposamena nola edo hala aurrera ateratzeko, hots, bataioa guztientzat adin nagusitara arte atzeratzea onartu zedin gurari bizia somatu nuen. Zergatik halako gogoia txostengileen aldetik? Ganoraz eta alderdikeriarik gabe jokatzeari zegokien; Batzarraren esku zegoen botua eta beronek erabaki behar zuen. Proposamenak argi-argi zeuden eta ez zuten hizlariaren hainbesteko azalpenik behar; batzarkideei zegokien hitz egitea. Harrigarria! Mahaiko inortxo ere ez nuen bestelako eritzirik agertzen ikusi. Guztiak elkar harturik. Zer dela eta hainbesteko guraria?

5) Manipulazio hau nabari agertzen den egoera, gehiago zehaztu nahi nuke. Beti ere pertsona nagusien bataioaz ari den 40a-b proposamenei nagokiela adierazi behar dut. Bilera-zuzendariak berriro ere mahaiko txostengileari eman zion hitza, proposamen hauen azpian edo oinarrian zetzan izpiritua, barruko esannahia adieraz ziezaion Batzarrari. Emandako azalpena zuzena zen, orokorra, onartzeko modukoa neritzan nik behintzat. Horrekin zer lortu nahi zen? Bada, hauxe batez ere: botatzera idatziz aurkezten ziren (nik onartzen ez nituenak hauek) proposamenekin zerikusi handirik ez zuen *azalpen hura* jendearen gogotan ongi grabatzea. Horrela erraz gerta zitekeen jendeak *azalpen hura* botatzea eta *ez idatziz botatzera aurkezten zen proposamen benetakoa*. Hori horrela eginez gero, biharamunerako «izpiritu hori» eta azalpenean erabilitako hitz dotoreak haizeak eramango zituen, eta benetan baliokoa idatzizkoa, botatua eta Batzarrak baietsia izango zen, jakina! Hala ere 40a-b proposamenek ez zuten beharrezko gehiengorik lortu. Honela auzia amaitutzat jotzen zen.

6) Manipulazio zeharkako edo psikologikoaren beste adibide bat, «Culto y oración» deritzen azken batzarraldiaren ondoko ostegun batetan gertatu zen Durangon apaizen asteroko bilera (1987-II-19), aipamen labur batzutan baino ez bada ere. Hizlariak (x.x.) Batzarraren azken aldiari buruz hitz egin zuen. Eta dirudienez, euren kulturagatik kritika-zen heldua eduki be-

har luketen apaizei egindako adarjotzea izan zen hitzaldi hori. Pozik agertu omen zen, Batzarrak bere botuz proposamen batzuk aurrera atera zituelako, baina interes bereziaz aurkeztutako beste zenbait bertan behera geratu zirelako, ordea, batzarkideei egozten zien errua; honelako jendearekin, honelako eta halako pentsamoldeko pertsonekin ez dagoela zereginik eta, Batzarrak aldeko botua eman ez zuelako mesprezuzko irridoinu batekin.

Adierazpen horietan hizlariak garbi-garbi agertzen zituen bere asmoak eta pentsakera: batzarkideek «beraren» proposamenak onartuz gero, ederto, ondo doa guztia, Batzarra zuzen ari da orduan; baina «beraren» proposamenek aurrera egin ezik, oster, une eta puntu horretan behintzat, Batzarra bat-batean karka, baliogabea bihurtzen zen, honen erabakiei men egin beharra badago ere. Ez ote da hau ideiak, jokaerak eta sentimenduak derrigortzea, manipulatzeara?

7) «Culto y oración» izeneko gaiari buruz agertu ziren proposamenekin eta bertan Bizkai osoa ordezkaturik zegoelarik, handikiro amaitu zen azken Batzarra. Proposamenak botatuak eta erabakiak geratu ziren; honelakoetan gertatu ohienez, ez guztion gustura. Baina hor geratu ziren erabakirik, era bateko eta besteko oharrez.

Lau aste geroago, «Objetivos diocesanos generales» gaiari buruzko azken Batzarrera joatea egokitu zitzaidan, hau da: gai guztietako taldeen ordezkariekin, baina IV. Bikariakoekin Euban 1987.eko Martxoaren 7an.

Hemen bortxaketaren gorpila abiadan jarri eta ezin gehiagora heldu zen; sinesgaitza zen niretzat han ikusitakoa: talde ezberdinetan eztabaidatu eta botatutako 141 proposamenaz gain, beste 34 proposamenez osaturiko paper bat aurkeztu zuten bilerara honetara (hauetatik batzuk lehengoak ziren aldakuntza txiki batzurekin eta beste batuk *berriak*).

«Berritzat» edo gehigarritzat zetozen proposamen horien artean bataioa adin nagusira atzeratzearen proposamena aurrean ikustean harri eta zur geratu nintzen. Honela dio azkenean:

«Plantéense prácticas pastorales que impliquen tanto la preparación seria de los padres que piden bautizar a sus hijos pequeños cuando la posibilidad de postergar el bautismo hasta la etapa de juventud, a fin de recuperar su dimensión de adhesión personal».

Beraz, berriro bataioa atzeratzearen arazoa formula leunago batez, eta (beste desegokitasun bat) umeen bataioarekin bat eginik, honi ere posibletzat atea irekitzen zitzaiolarik. Lehen «Culto y oración» izeneko bileran ezezkoa eman eta erabakirik utzi zena, orain gehigarri bitxi batekin itxuraldaturik agertzen digute. (Ez dut ezer esan nahi txostengileek honetaz eman zuten irudi kaxkar eta manipulatzaileaz).

Negar-gurea ematen zuen; ni, arrazoi ezberdinengatik isilik egoteko asmotan joan nintzen, baina azken-azkenean, guztiek euren esan beharrekoak esan eta gero, astiunetxoren bat gertatzen zela eta bilera-zuzendariak galderak egiteko aukera eman zuenean ireki nuen ahoa, galdera batzuk labur-labur egiteko: Proposamen batzuk (bataioa atzeratzea etab.), hau da, ideia berberak lehendik «Culto y oración» izeneko azken Batzarrean erabakirik geraturik, zergatik berriro ere hemen proposamen berri legez agertzen dira? Lehen ezetza jaso zutelako eta, nola edo hala, norbaitzuk aurrera atera nahi dituztelako ez ote? Edo eta hori zilegi izan ez arren, bi edo hirurekin hala egiten bada, zergatik ez beste batzurekin ere? Egotez otsailaren 8rako zeuden proposamen guztiak *erabakirik eta!*

Hizlariaren erantzuna (esaldi batetan bildua: «bada, batzuk proposatuak izan dirclako eta beste batzuk ez») irrigarria iruditu zitzaidan; baina orduan mahaiko emakume batek ekin zion berehala hitz egiteari, azaldu ezinekoa azaldu nahirik, eta azalpen hari hainbat galdera larri eta salakuntza ihardets dakizkiola konturatu gabe: ideia batzuekin hori egin bada, zergatik ez beste batzuekin ere? Proposamen berririk edo eranskinik aurkeztea (hori ez da zilegi, erabakirik geratu baitziren guztiak), baina zilegi baltz ere, ideia guztientzat izan behar zilegi eta ez batzurentzat bakarrik. Batzarrak behin eta betiko erabakirik utzitako arazoez

proposamen berriak egin eta haiek aldatu ahal izateko ankerarik bazela, zergatik ez zitzaien batzarkide guztiei sasoiz jakin erazi? Zer dela eta isilpean jokatzekeo ardura hori?

Proposamen «berri» horiekin ez ote zaio ukatzen «Culto y oración» Batzarrari erabakiak hartzeko eskubidea? Eta beraz, proposamen batzutan haren erabakiak baliogabeak izan badira, zergatik izango dira baliokoak beste guztietan?

Ez ote gara aurkitzen bortxaketa edo manipulazio-sail baten aurrean?

Bortxatutako bataioaren gaiaren arduradunei galdera larriak

Orain osagarri edo erantzun moduan bataioaren gaiaz oinarrizko doktrina azaltzea ezinezko zaidanez, galdera batzuk egingo ditut, hemen zeharo ahaztuak eta isilduak izan diren zenbait alde garrantzitsu gogora erazteko asmoz.

Gai honetan eman izan diren bortxaketak, gehien batez, sustrai beretik datoz: txostengileek eta hizlariak bataioaren gaia ikuspegi bakar batetik aztertu dutela soilik; egia esan, bataioaren gaian, garrantzirik handienetarikoa du ikuspegi horrek: Jainkoaren grazia kontzienteki hartzea eta pertsona helduaren menta-noiarako ahalmena.

Baina hortik, arrazoi hori absolutu bihurtu eta beste guztia kontutan ez hartzea, alde itzela dago eta axolagabekeriaz jokatzea litzateke. Horrek zentzugabekeria garamatza eta bataioaren funtsezko nahiz azaleko beste alde batzuk ukatzera. (Beti ere benetan kristau diren familietako umeen bataioaz dihardut batez ere). Hala uste ez badute, erantzun diezaietela galdera hauei:

Jokabide horrek, *inolako bereizketarik gabe* bataio guztiak adin nagusitara (16-22 urtetara) atzeratzeak ez ote du ahazten bataioaren historia bere kristau aurreko, kristau aroko eta gero-ko garapeneko aldiak? Ez ote du ahazten bere burua osotuz apurka-apurka joan den Elizaren historia?

Ez ote du ahazten, neurri batez behintzat, Jainkoaren ahalmena, haren graziaren eragina sakramentu honetan? Ez ote du ahazten Jainkoak bere aldetik egiten duen eskaintzaren misterioa?

Ez ote du ahazten Elizaren baitan Kristoren familiak duen sozial-izaera? Ez ote dau ahazten gizabanakoaren fedea dituen izari ezberdinak batez ere kristau-elkarteari begira? Ez ote du ahazten kristau-familiak, etxean bertan, senitartean *Eliza* izan eta egiteko zeregina?

Ez aldu ahazten umeak, Kristorena den familia batetan, «kristau» eta Kristorena izateko duen ahalmena?

Ez ote du ahazten familian ematen den giza-elkartasuna zuhurren eta inozoen artean, buruz nahiz gorputzez sendo eta ahul direnen artean? Ez ote du ahazten familian izan ohi den berezko eta beharrezko kristau eta psiko-sozial alkartasunaren bidez Kristoren maitasunez sarituak izatea? Ez ote du ahazten Kristok etxeko senide guztiengan agertu eta era guztitako pertsonen Eliza egiteko duen ahalmena: gizonezkoen, andrazkoen, haurrez, zaharrez, buruz nahiz gorputzez sano dagozenez eta gaiso dagozenez, aberatsez eta behartsuz, «gregoz eta judutarrez» (=espainoliz eta euskaldun abertzalez), familia batetan hain beharrezko eta berezko dien elkartasun eta harremanetan?

Ez al du ahazten proposamen absolutu honek pertsona askoren bazterkuntza dakarrela, askok, Jainkoaren maitasun eta salbamenaren ezaugarriak eurengan somatzeko gai izan arren, ez dutelako sekula lortuko metanoia kontziente hori? Ez al du ahazten giza-batasuna batez ere familian Jainko egilearen aurrean eta guztion onerako gure gaiztakeria bere gain hartu zuen Jesukristoren aurrean?

Ez al du ahazten Elizak baztertuekin bat egin behar duela eta proposamen horiekin bazterkuntza eragiten duela? Jainkoak bere salbamen egintzan ez gizataldeen artean, ez adin ezberdinekoen artean, ez sexu edo adimen-maila ezberdinen artean eta

gutxiago oraindik kristau familiako senideen artean sekula sortuz ez dituen bazterkuntza eta mugak?

Ez al du ahazten kristau-sarbidean, metanoiaz eta Elizaren hasierako egoeraz gainera badela beste era edo biderik ere?

Ez al du ahazten gehiegizko arrazionalismoa gaindituz, bizikizunaren eta esperientziaren aroan bizi garela batez ere? Euren akats eta guzti, eskola parasikologikoez diotena aintzat hartzen dela eta hauek giza-izaeraren hainbat zertzelada egiaztatzen dutela; haurrengan bizi-bizi dauden zertzeladak eta pertsona helduen kontzientziatik at daudenak?

Ez al ditu ahazten haurtzaroan gertatzen diren fenomenoek buruz psiko-pedagogiak egin dituen aurrerapen izugarriak? Ez al du ahazten, psikologiak erakusten duenez, giza-garapenean subkontzienteak duen garrantzia?

Eta azkenez, arrazoizkoa den zatitxo horretan itsuturik, dogmatismo atzerakoian ez ote zarete erori?

Galdera hauek, Batzarraren arduradunentzat gogoeta-bide izan daitezala nahi nuke, gai batzutan manipulazioari leku eman baitzaio, Elizbarrutiko Batzarraren itzala motelduz.

Idazlan hau, hor bizi izandako egoeraren (errealitate zati baten) lekukotzat geratuko da, eta beraz, erabaki manipulatuaren indargaltze eta murrizketaren testigantza legez.

Julen Urkiza